

...eta

# Kitto!

829 zkia.  
2012-XII-21



## Ilusioak badu HARROBIrik

**EUKi**

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - beheak  
943 20 42 99

**AUTOAREN ASEGURUA**  
*preziorik onenean*





**IRAZABAL**  
clínica dental

*Gabon zorienttsuak!!!*

**Antonio Murillo doktorea**

PERIODONTZIA, INPLANTOLOGIA, AHO-KIRURGIA

**Ainhoa Zulueta doktorea**

ODONTOLOGIA OROKORRA, PROTESIAK, ESTETIKA

**Susana Sierra doktorea**

ORTODONTZIA, OKLUSIOA

**Maitane G. Iñiguez doktorea**

ODONTOLOGIA OROKORRA, ODONTOPEDIATRIA

**ORDUTEGIA:**





Astelehenetik ostegunera: 08.00-22.00

Zapatuetan: 10.00-14.00

**IRAZABAL HORTZ-KLINIKA**

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52

[www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com) - [info@clinicairazabal.com](mailto:info@clinicairazabal.com)



# ASTEAN ESANAK

"Prestige-ren hondoratzea aurreikus zitekeen. Ez zen kasualitatea izan; probabilitateen batura besterik ez. Petrolio isurketen mapa ikusita, erdia baino gehiago Costa da Morten gertatu dira. Ontzia bera desastrea zen"  
(IONAN MARI GOMEZ, BIOLOGOA)

"Egoera aldatu nahi izateak ez du inor automatikoki ezkertiar bihurtzen. Ez nago seguru literato gehienak ezkererantz makurtzen ote diren edo horren plantak bakarrik egiten dituzten. Vargas Llosa dugu adibide argia"  
(IBAN ZAIDUA, IDAZLEA)

"Tokiko hedabideak giltzarri dira euskal hitzunen komunitatea trinkotzeko, erakarmen handia duen esparrua baita kontsumitzaile potentzialentzat. Elebidunen artean, gehiago dira gaztelaniaz hobeto moldatzen direnak"  
(PATXI BAZTARRIKA, HIZKUNTZALARIA)

"Tortura ohiko norma izanda ere, hala sinisten ez dutenak hiritar guztien erdia dira. Beti kritikatu izan dut atxilotuek babes judizialik eza, baina aitortzen dut ez dudala beharko nukeen bezain tinko, gogor edo ozen esan"  
(FCO. ETXEBERRIA, ANTROPOLOGOA)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

IZUR.- Erropetako tolesdura. Erderazko 'frunce'. "Arratixako neskatillak, dana izurrezko gona urdiña erromerixarako".

IZURRA HARTU.- Izurra (frunce, dobladillo) josi. Jostunen hizketan. "Izur bat hartixozu barren guztian, apur bat laburtzeko luzeegi dozu ba gona hori".

## eskutitzak

### GABONAK, AZKEN OSTIRALA, U-12...

Urte garai berezia izaten da hau guztiontzat eta, nola ez, Euskal Herriko etxe gehiegitan nabaritzen den zuloa are nabarmenagoa izango da, aulki asko eta asko geratuko baitira aurten ere hutsik.

Horregatik, Preso eta Iheslarien eskubideen aldeko ekimenak ere areagotu egiten dira eta Eibarraren daukagun egitarauaren berri eman nahi dizuegu: **Abenduaren 27an**, 19.00etan inauguratuko da Jose Luis Irigoien argazkilaria Eibarko Herrirari emandako argazkien erakusketa eta salmenta, Topalekun. **Abenduaren 28a** Azken Ostirala dugu eta 19.30etan, Untzagatik hasita, Gizakatea osatuko dugu. Amaieran, U-12an Bilborako deialdia eginez, argazki herrikoia aterako dugu. **Urtezahar egunean**, 19.00etan, manifa egingo dugu Untzagan. Eta, gerotxuago, **Ur-**

**teberriaren** 01:00ean, Euskal Preso eta Iheslarien eskubideen aldeko brindisa Untzagan; ondoren, 10.30etan, denok Urko puntan, presoei balditzeko argazkirako prest -eta beste brindis bat, ze arraiot!-

**Eta urtarrilaren 12an denok Bilbora.** Kondena bete dutenak kalera! Gaixo larriak etxera! 3/4ak eta 2/3ak betetakoentzat behinbehineko askatasuna! Euskal Preso eta Iheslariak Euskal Herrira! Gorrotoa eta mendeku gosea besterik adierazten ez duten salbuespeneko egoera horiek gainditzeko, eibartar guztien elkartasuna eta inplikazioa behar beharrezkoak ditugu. Ekimen hauetan ikusiko garelakoan... Zorionak eta Urte Berri On denori! Berreziki, Zarrabe eta Muñotarrei.

EIBARKO HERRIRA

### AUZO BILEREN BALORAZIOA (2. ITZULIA)

Baikorki baloratzen dugu amaitu berri den auzo bileren 2. itzulia eta zoriondu nahi ditugu bai auzotarrak, bai bertaratutakoak eta baita Udala ere, parte-hartze eredu hori praktikatzeko. Uste dugu foru egokia dela auzotarrekin euren kezka, aholku edo kezak aurkezteko, Udalarekin harreman zuzenean. Aldi berean, pentsatzen dugu horrek ere baduela hobetzeko tarterik eta Udalarari proposamen batzuk egin dizkiogu bilera horietako funtzionamendua eta helburuak hobetzeko asmoz. Espero dugu jasotako parte-hartzeak, lehen itzulikoarenak eta hartutako erabakiak modura, bere tokia izango

dutela udal web orrian, horrela hurrengo itzulirako jarraitu eta kontrol lanak egiteko. Azpimarratu nahi dugu ere parte hartu dutenen artean gehienak adinean aurrera doazenak izan direla eta Udala animatu nahi genuke horrelakoetan jende gaztearen parte-hartzea bultzatu dezan, seguru baikaude proposamen bat baino gehiago izango dutela. Azkenik, bilera horiekin jarraituko dugulakoan, eibartarrei eskatzen diegu kexa eta iradokizun udal zerbizua erabiltzeko (bai Pegoraren bitartez eta baita web orria erabiliz).

MAIXA (EIBARKO HERRITARREN PARTE-HARTZE MAHAIA)



**ARGITARATZAILERA:** ...eta kitto! Euskara Elkarte. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar  
**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.  
**Astekararen E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /  
publizitatea@etakitto.com **Elkarteen E-MAILak:** elkarte@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com  
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Itziar Albizu, Mainer Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,  
Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.  
**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Mainer Aranberri.  
**PUBUZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnua:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Ekhi Belar  
**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhua Luz. **TIRADA:** 8.000 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).  
**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679  
("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO


KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETTA)

kutxa gizarte ekintza



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,  
Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak  
diruz lagundutako aldizkaria

## autuan



### TAPOI-KONTENEDORIA

Plastikozko tapoia batzeko kontenedoria ipiñi dabe Urkizun. Bertan batutakua "Fibrodisplasia Osificante Progresiva" (FOP) izeneko gaitzak eragindakuen Bizimina alkartekueri laguntzeko erabiliko ditue. Oñ arte horretarako edukiontzi bakarra zegan herrixan, Calbetón kalia.

### EGOAZIA

Gabonetan Casamania dendiak birziklapenerako artikuluak salduta batzia lortzen daben dirua Egoazia GKE-ari emongo detsa, garatzen dituan proiektuetan laguntzeko.

### UDALA ENERGIXAREN ALDE

Eibarko Udalak, Bartzelona eta Danimarkako Kalendbourg-ekin alkarlanian dihardu, kaleko argiztapena optimizatzeko sistema garatzeko Europa maillako proiektuan. IK4-Teknikerrek garatutako sistemian probatzeko datuak batzen hasitta dagoz.

### BIDEGORRIXA

Eibarko Bilduko ordezkariak pozik dagoz, 2013ko Foru Aldundiko presupuestuan Azitain eta Maltzaga arteko bidegorrixaren eraikuntza kontuan izango dabelako.

## Ana Isabel Oregi Ingurumen eta Lurralde Politiketarako sailburu

Ana Isabel Oregi Bastarrika (Eibar, 1965) izendatu dabe Eusko Jaurlaritza eratu barriko Ingurumen eta Lurralde Politiketarako sailburu. Oregik hirigintza-arkitektura ikasketak egin zittuan Nafarroako Unibersidadeko Goi-Maillako Arkitektura Eskola Teknikuan eta Hirigintza-zuzenbidian diplomaua da. Horrez gain, musika irakasle ikasketak be egin ditte, piano espezialidadian. Azken hiru urtietan Gasteizko udaletxian funtzionario jardun dau, batez be urbanismuarekin zerikusia daken karguetan. Aurretik, 2000ko uztaillian, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saillako ordezkaria izan zan Araban eta handik urtebetera, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Zuzendari kargua bete eban. Ondoren, 2001eko iraillian Jaurlaritzako Uren Zuzendari izatera pasau zan.



## Krisixari aurre egitteko alkarlanian

Egoera ekonomiko oso larrixan daguezeneri laguntasuna emoteko asmoz, "Orain inoiz baino +" goiburuko kanpaiñia dake martxan Gurutze Gorrikuak eta Eibarko Udalak eurekin bat egittia erabagi dau. Gizartekintza eta Cáritasen diharduenak balorauko dabe premiñarik larrixena bizi dabenak zeintzuk diran eta hórretxan artian produktu-lote batzuk banatzeko asmua dake. Kanpaiñaren barri emoteko agerraldixan azaldu ebenez, Eroski supermerkauek be kanpaiñari laguntasuna eskintzen dihardu, bestiak beste Ipuruako dendan lagundu nahi dabenandako "arbola solidarixua" apaintzekuak salgai ipiñitta. Ohiko laguntasunen osagarri modukuak izango diran produkto-loteak diferentia dira, asetu biharreko premiñen ar-



Gurutze Gorria, Eibarko Udala eta Eroskiko ordezkariak.

bera: jaixo barri eta umiendako garbittasunerako produktuak, janarix eta eskola materixalak emongo ditue; etxia eta bertan bizi diranendako garbittasunerako produktuak; kalia bizi diranendako, barriz, garbitzeko produktuez gain dutxarako tiketak eta lotarako zakuak banatuko ditue; eta eskolan laguntasuna bihar dabenendako zein biharra topau nahi dabenendako laguntasun eta baliabidiak eskintzeko asmua be badake.

## Presuen aldeko ekimenak

Urte sasoi honetan ohikua dan moduan, euskal preso eta iheslarixen eskubidien aldeko ekimenak ugaritu egingo dira. Preparau daben programia datorren astian hasiko da, hillaren 27xan: 19.00etan inaugurauko dabe Jose Luis Irigoien argazkilarixak Eibarko Herriari emondako argazkixen erakusketia eta salmenta Topalekuan. Hurrengo eguna barixakua izanda, Azken Ostirala egingo da 19.30xetan Untzagatik urtengo daben giza-katiarekin. Amaiztian, U-12an Bilbora juateko deialdixa egitteko

talde-argazkixia etarako dabe. Urtezahar egunian segiduko dabe ekitaldixak, 19.00etan Untzagatik hasiko dan manifestaziñuarekin. Gaberdixa pasauta eta urte barrixari ongi etorrixa emoteko, goizaldeko 01.00ian preso eta iheslarixen aldeko brindisa egingo da Untzagan. Eta bixamonian,



Presuen aldeko talde-argazkixiak etarako dira Untzagan eta Urkon.

10.30xetan, Urko puntan presueri bidaltzeko beste erretrato bat etara eta atzera be brindisa egitteko asmua dake.

## T. Etxebarria premixuak Eibarko proiektu onena sarituko dabe

Martitzenian presentau zittuen udaletxian Toribio Etxebarria Sarixak 2012 Miguel de los Toyos alkatiak eta Marisa Arriola BIC Gipuzkoa Berrilaneke arduradunak. Udalak eta BIC Gipuzkoa Berrilaneke 1990 urtian sortutako sarixetan 100.000 eurotik gora banatzen dittue eta horrek Euskal Herri maillan enpresa barrikuntza arluan inportantienak bihurtzen dittu.




Marisa Arriola eta Miguel de los Toyos. SILBIA HERNANDEZ

Aurtengo barritasun nagusixa Eibarko enpresa proiektu nabarmenari aitorten sarixa aurretik emoten zittueneri gehittu detsela da. Ediziño honetarako kandidaturak aurkezteko azken eguna 2013ko otsailaren 6xa izango da eta presentau biharreko dokumentaziñua (bete biharreko baldintzak, galdeketa, izen-emoteko orrixa) zeñ informaziño osua [www.bicberrilan.com](http://www.bicberrilan.com) webgunian eskuratu leike.

## ...eta kitto!-ren otarra 1.626rendako



Eguaztenian zozketatu zan ...eta kitto! Euskara Elkartearen Gabonetako otarra. Zozketarako zenbakixak Euskara Elkartearen loterixaren txarteletan, kolore gorrixan daguzenak dira eta irabazlia Jose Luis Gorostegik saldu daben 1.626 zenbakixa izan da. Irabazliak eguaztetik hasitta 15 eguneko epia eukiko dau sarixa jasotzeko, ...eta kitto!-ra zuzenian etorritta (Urkizu, 11 solairuartea) edo telefonoz deittuta (943200918). Epea amaittuta ez bada iñor agertu, ordezkua eruango dau sarixa (Isasi okindegixan saldutako 175 zenbakixak).



## Abontzatomasak, elikagaixen bankuari laguntzeko

Abontzako Itturixalkatiak domekan ospatuko dittu Abontzatomasak. 12.30xetan hasi eta 14.30xak arte, Egigurentarreneko parkian dana gertatuta eukiko dabe eguardixa ondo baiño hobeto emotera animatzen diranendako: umiendako jolasak (lapikuak apurtu, txingak eruatia...) antolatziagain, salda berua eta txistorria ez dira faltauko txosnan, beste edari eta jatekuekin batera. Egoera ekonomikuak eragindako kaltia gitxitzen laguntzeko asmuarekin, gaiñera, aurtun jaixan batzen daben dirua Elikagaixen Bankuendako janarixa erosteko erabilliko dabe eta txosnan zeozer hartzen daben artian otar ederra zozketatziag aparte, aurtun Eibar foball taldiaren kamisetia be zozketatuko dabe.

**ITURRI**  
ARDOAK  
ETXERA ERAMATEN DUGU  
Eibarko Merkatu Plaza - Rialto  
Tel. 943 12 05 87

**ITZULPEN**  
ERA GUZTIETAKO TESTUAK  
ITZULTZEN DITUGU,  
euskaratik gaztelerara,  
gazteleratik euskarara,  
eta ingelesetik euskarara.  
**ZERBITZUA**  
[elkartea@etakitto.com](mailto:elkartea@etakitto.com)

**EGOITZA NAGUSIA**  
Bilabarrizeta 20 - beheko, eskuma

**MUGICA FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Daba  
Tanatorio eta Erusketako labora  
Egaitzen (lugar poligonoz)  
Partikular, eratu eta desagur eratu partikular  
Kiooki - Eskelari - Urtumoko eskelari  
Euskal Herri osoko ospitaleen hartza 2013ko  
Nazioen Nazioentzako traladiaz

**Mugica Ehorzketa**  
FUNERARIA MUGICA

TELEFONUA (24 ORDU)  
**943 201 951**

BELARRITAKO  
KARRATUAA:  
34,60 euro

ZINTZILIKARIO  
KARRATUA:  
18 euro

HARMARRIA  
ZINTZILIKARIOA:  
23,60 euro

PULTSERA:  
38,90 euro

KAXA:  
22 euro

UMIEN KAMISETA:  
20 euro

EGUZKILORE ZINTZILIKARIOA:  
30,20 euro

KATEA:  
20 euro

NARRUZKO PULTSERA:  
11,80 euro

ARBOLARAKO  
OLENTZERO:  
3,50 euro

KAMISETA NAFARROA:  
12 euro

KAMISETA BERTSO B:  
15 euro

KAMISETA REVOLUTION:  
17 euro

KAMISETA BERTSO A:  
15 euro

TXANPONETAKOA:  
4 euro

GERRIKO POLTSA:  
12 euro

KITTO-AMANTALA:  
10 euro

KITTO-AMANTALA:  
15 euro

ATERAKO ALFONBRA: 12 euro

Etorri Olentzerori zerrenda egiten laguntzera. Egunero, ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAREN bulegoan (Urkizu, 11)  
**ASTELEHENETIK BARIKAKURA**  
**10.00-13.00/16.30-19.30**

**IKUSI,  
AUKERATU eta  
EGIN ENKARGUA!**

TxotxongiLOA B:  
35 euro

TxotxongiLOA A:  
35 euro

# ...eta kitto! Euskara Elkartearen Gabonetako KATALOGOA


KATALOGOAK DITUEN IRABAZIAK EUSKERA SUSTATZEN ERABILIKO DITUGU



Euskara Elkartea



KARRIKIRI  
IRABEKO EUSKALGAIEN TIKETAK



BI BELARRI ENTZUTEKO: 14 euro



BEGIAK LEKUKO: 15 euro




ERRIAK: 16,70 euro



GOZATEGI ALL STARS: 16,70 euro




HERRI MUSIKA TA DANTZA: 11 euro



IBILEAN: 18,50 euro




NAFARROA BIZIRIK: 12 euro



OROIMENAREN ORAINA: 19,65 euro



XABIER LETE ZUZENEAN: 24 euro



GAZTA ZATI BAT: 17 euro




TXANTXARIAK: 20 euro

DISKO,  
DVD ETA  
LIBURUAK



ZORION ARGIAK: 16,70 euro



BERTSOLARI:  
12 euro

HISTORIA NAFARRA: 18 euro



**Ekainean grabatutako "No pido mucho" laburmetraian produkzio zuzendaria izan zen eibartarrak kulturari lotutako esparru guztiak maite ditu eta berea da @bproiektua, ikus-entzunezkoak auzolanean sortzeko bidea zabaltzeko asmoz sarean sortutakoa. Krisiaren alde negatiboa gaindituta, sormenerako aukerak bilatzearen aldekoa da gaztea.**

**- Nola suertatu zitzaizun "No pido mucho" laburmetraian parte hartzeko aukera?**

Bartzelonako unibertsitatean "Zuzendaritza eta Produkzioa zinema eta telebistan" masterra egiten nengoen eta kurtsorearen amaieran klasekideen artean laburmetraia grabatu behar genuen 35 mm-tan. Grabazioarekin hasi baino hilabete lehenago baikoitzak gidoi bana idatzi genuen eta, gure artean bozkatu ondoren, nireak eta beste batenak jaso zuten boto gehien. Orduan, gidoi bien arteko fusioa egin eta munduaren amaierari buruzko istorioa kontatzea erabaki genuen. Baiña azken momentuan arazoak izan genituen eta ezin izan genuen lana grabatu.

**- Zer gertatu zen ba?**

Kalean kamara batekin zerbait grabatzera irten ahal izateko, legeak hainbat baimen eskatzea aurreikusten du, danerako baimena behar izaten da. Guk automobilak sartu behar genituen grabazio-eremuan eta ez ziguten horretarako baimenik eman azken momentuan. Holarakoetan produkzio zuzendariak (kasu honetan nik) aukera bi izaten ditu: grabazioa egiteko tokia aldatu edo, bestela, gidodia aldatu. Guk bigarren aukera

hautatu eta gure esku genituen lokalizazio, aktore eta bestelako baliabideak erabilia, kontatu beharreko istorioa moldatu genuen. Gironako klasekide batek idatzi zuen.

**- Hala ere, nolako esperientzia izan da?**

Hau zinea da, 35 mm-tan grabatutako pelikula eta horrek irizpide batzuk ematen dizkizu, pelikula lata bi, hau da, lau minuturako pelikula besterik ez gurelako eta grabaziorako, berriz, 6 orduko tartea. 14 lagunek jardun dugu: Kataluniako lauk, Galizia-ko bik, Hego Amerikako zazpik eta euskaldun batek. Herrialde eta izaera ezberdineko lagunek eguneroko lana aurrera ateratzea erronka izan da. Bestalde, pelikula bat eskuekin ikutzea, zinema egitea... esperientzia polita izan da.


**- Zerk erakartzen zaitu gehien?**

Kulturako arlo guztiak eta ikus-entzunezkoak bereziki gustatzen zaizkit. Baina idaztea eta istorioak kontatzea ere asko gustatzen zaizkit. Gauzak dauden moduan egonda, baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatu behar ditugula uste dut, emaitza onenak lortzeko. Aurretik ere askok oso gauza onak egin dituzte diru gutxirekin.



Ane Urkiola  
(IKUS-ENTZUNEZKO FREELANCE-A)

**"Diru gutxirekin emaitza onak lortu daitezke"**



**PILAR  
MÍGUEZ CID**

*I. urteurrena  
(2011-XII-20)*

**"Maite zaitugu"**

ZURE ETXEKOAK



Gure bideak argitzen jarraitzen duzu.



# Gabon giruan



## Zona 10 alkartia Estaziño eta inguruan

San Agustin, Errebal, Ibarkurutze, Arragueta eta Estaziñoko 65 bat merkatarik osatutako Zona 10 alkartiak Gabonetarako programaziño zabala preparau dau: gaur 18.00etatik aurrera Olenzero Ibarkurutzeko iturri inguruan ibilliko da, umiak dendetan lagatako karten artian zozketia egiñ eta Orbea bizikleta bat eta beste 60 opari banatzen.

Hurrengo astian, hillaren 28xan, beste zozketa bat egingo dabe toki berian 19.00ak aldera: irabazliak 500 euroko txekia jasoko dau, esaten detsen egunian 10.00ak eta 13.00ak bittartian Zona 10-eko dendetan gastatzeko. Ekitaldi nagusixa Errege Eguneko bezperarako, urtarrillaren 5erako preparau dabe: 10.00etatik 14.00etara Gabonetako Azokia egongo da martxan Estaziño kalia 60 artisau baiño gehixagoren produktuak eskintzen, baiña hórretxen barri hurrengo astian emongo dogu.

## Gabonetako doiñuak

Holako urte sasoiari musikarixak kontzertu berezixak eskintzen dittue. Lehelengua aurreko eguaztenian emon eben Juan Bautista Gisasola Musika Eskolakuak, San Andres elizan. Hurrengo emanaldixa, barriz, domekan Usartza Txistulari Bandaquak 13.00etan udaletzeko arkupietan emongo dabe, Elena Pérezek zuzenduta. Programia "Euskal bilantzikoa" (Isidro Ansorena, J. I. Ansorenak moldatuta), "Ai! Au Gabean" (Javier Hernández Arsuaga), "Gabon abesbiak" (Isidro Ansorena, J. I. Ansorenak moldatuta), "Eguberriko Zazpi kanta" (J. I. Ansorena), "Ez adiorik" (J. I. Ansorena), "Bi bilantziko" (herrikoiak, J. I. Ansorenak moldatuta), "Aingeruetazko Soinua" (Lorenzo Ondarra Kintana) eta "Atzerriko Eguberria" (J. I. Ansorena) piezak osatuko dabe.

Eta domekan bertan, baiña 20.00etan Sostoa abesbatzaren txandia izango da. San Andres elizan abestuko dabe eta egunerako Euskal Herriko zein beste herri batzuetako gabon kantak aukeratu dittue. Sarrerria musutruk izango da, baiña atian kutxa bat ipiñiko dabe, nahi dabenak dirua emoteko. Bertan batzen dabena Cáritas-i emongo detse. Eibarren ez eze, bixar saiua errepikatuko dabe, 19.45etan Zaldibarren (hango San Andres elizan). Eta datorren urtarrillaren 19rako beste kontzertu bat lotuta dake honezkerok: Hondarribira juango dira, Zarzuelari eskindutako kontzertua emotera.

Ustekabe fanfarrekuak be badake hitzordurik euren agendan: bixar 18.30etatik 22.00etara Ermuko kalia girotzen ibilliko dira, hango dendarixak gonbidautu. Eurekin batera Ermuko Irulitxa txaragakuak jardungo dabe.



### U R T A R R I L A

	<u>1</u>	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	<u>18</u>	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	<u>29</u>	30	31			

### O T S A I L A


				1	2	3
4	5	6	7	<u>8</u>	9	10
11	<u>12</u>	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	<u>24</u>
25	26	27	28			

### M A R T X O A

				1	2	3
4	<u>5</u>	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	<u>28</u>	<u>29</u>	30	31

### A P I R I L A

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	<u>26</u>	<u>27</u>	28
29	30					



Egin zaitez  
...eta kitto!ko  
bazkide!

2 0 1 3 k o  
n e g u k o  
k e u l t u r a  
e s k a i n t z a

...eta kitto! Euskara Elkarte

eta  
kitto!

Euskara Elkarte

Urkizu pasealekua 11, solairuartea  
20600 Eibar (Gipuzkoa)  
Tel: 943 20 09 18  
elkarte@etakitto.com  
www.etakitto.com

# Gabon giruan

## Olentzero eta Erregiak kalejiran

Astelehenian, urteroko zitari kale egin barik, Olentzero ailegauko jaku. 17.00etan udaletxian ekingo detsa biharrari, umieri oparixak banatzen eta 18.00rak aldian kalejiria hasiko dau Untzagan, Pantxika astuak, Kaleetan Kantuz abesbatzak, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako soinu ikasliak eta trikitalarixek lagunduta. Ibilbidia urterokua izango da: Untzaga, Calbetón, Bidebarrieta, Urkizu, Errebal, Julian Etxebarria, Toribio Etxebarria eta atzera be Untzaga. Kalejiria amaituta, Olentzerok azken orduko gutunak jasoko ditu udaletxian.



Hiru Erregiak pixka bat gerotxuago etorriko jakuz bisitan, urtarrillaren 5ian. 17.00etan Ipurua Dantza Garaikide Taldiak, Ipurua Gimnasia Erritmika Taldiak eta Eibarko Balletak dantza erakustaldixa eskinduko dabe Astelena frontoian. Kabalgatia 19.00ak aldian hastia dago aurreikusitua eta karroza gaiñeko Erregieri laguntzen Cielito Musika Bandakuak juango dira.


## Gabonetako parkia 26xan hasita

Datorren astian, hillaren 26xan zabalduko ditu atiak Guai Gabonetako parkiak Astelena frontoian. Hillaren 27, 28 eta 29xan eta urtarrillaren 2, 3 eta 4an egongo da martxan, 11.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 20.30xetara. Sarrerak Eibar Merkataritza Gune Irekiak (EMGIK) banatuko dittuan bonuen bittartez edo Astelenako takillan erositta eskuratu leikez. EMGIren ekimena da baita be Ugan gimnasixuan martxan dagan Txiki Parka: gaur eta bixar, hurrengo asteburuan eta urtarrillaren 4an egongo da zabalik, barixakuetan 17.00etatik 20.30xetara eta zapatuetan 11.00etatik 14.00eta-

ra eta 17.00etatik 20.30xetara. Eta hórrekin batera, barrakak ipiñi dittue anbulatorixoko parkian eta Urkizun: abenduak 21, 22, 24, 26, 27, 28, 29 eta 31 musutruk ibiltzeko aukeria eukiko dabe dendarixen bonua dakenak eta gaiñontzeko egunetan (abenduaren 23, 25 eta 30ian eta urtarrillaren 1, 2, 3, 4, 5 eta 6xan) 1'5 euro pagau biharko dira.

## Eibarko artisauak Bizikleta Plazan

Eibart Eibarko Artisauen alkartiak zor-zigarrenez antolatu dau azokia Eibarko Bizikleta Plazan. Atzo bertan zabaldu eta Errege Egunaren bezperara arte martxan egongo da, egunero 11.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 21.00etara (abenduak 25ian eta urtarrillaren 1ian itxitta egongo da). Aurten 14 artisauk hartuko dabe parte, eskintza zabalarekin: bitxiak (zillarra, ehuna, beira, gantxillua...), egurrezko ontzixak, margotutako ehun eta gantxillo osagarrixak, telarrian egingakuak, narrua, eskuz margotutako umiendako arropak, errestauraziño eta birziklapenetik sortutakuak, krema eta jaboia, errementarixa, luthierra... Gaiñera, euren biharra ezagutzera emoteko, artisauak erakustaldixak eskintzen dittue eta eskulan tallarrak be antolatu dittue, Udaleko Kultura saillak emondako diru-laguntzari esker. Aurtengo tallarretan egurrezko biharrak landuko dittue hillaren 26 eta 28xan eta urtarrillaren 3an (arratsaldez karpan).




### URTARRILA

#### URTARRILAK 1, martitzena

Urko igoera, ...eta kitto! Euskara Elkarte eta Klub Deportiboaren eskutik. Hamaietakoia Ixuan.

#### URTARRILAK 18, barixakua

Mozorro tailerra, Gurasoak Berbetan egitasmoko kideentzat. 17.30etan ...eta kitto! Euskara Elkarte.



#### URTARRILAK 29, martitzena

Harixa Emoten literatur tailerra 19.00etan ...eta kitto! Euskara Elkarte.

### OTSAILA

#### OTSAILAK 8, barixakua

Kaldereroen kalejira 20.00etan Urkizuko parketik Untzagara eta Aratosteetako pregoia Kaldereroak heldutakoan.

#### OTSAILAK 10, domeka

Play Back lehiaketa arratsaldeko 17.00etan Untzaga Plazan (LH5-6)

#### OTSAILAK 12, martitzena

Artisau gaztaren dastaketa Ramon Lizeaga gaztagilearekin, Illunabarrian programaren barruan. 19.00etan ...eta kitto! Euskara Elkarte.




### OTSAILAK 24, domeka

"Miru, aintzirako sorgina" umeentzat ikuskizuna, Gurasoak Berbetan egitasmoko kideentzat. 11.30etan Portaleko areto nagusian.

### MARTXOA

#### MARTXOAK 5, martitzena

"Emakume baserritarrak" hitzaldia, Amaia Negroren eskutik. 19.00etan Portaleko areto nagusian.



### APIRILA

#### APIRILAK 26, barixakua

Sukaldaritza famelixan. Gurasoak Berbetan. 19.00etan.

#### APIRILAK 27, zapatua

Irteera, egun pasa, Berbetan egitasmoa berbalagunekin.



...eta horrez gain: Barixakuero ...eta kitto! astekaria Hilero Txikitto! umeen aldizkaria Astero Berbetan mintzapraktika taldeak; baita ere guraso eta dendarientzat Itzulpenak eta diseinu lanak [www.etakitto.com](http://www.etakitto.com)

# GABONETAKO FERIA 2012

## ANBULATORIOA - URKIZU

abenduak	21, 22, 24, 26, 27, 28, 29, 31	DOAN
abenduak	23, 25, 30	1/1,5 €
urtarrila	1, 2, 3, 4, 5, 6	1/1,5 €

**ORDUTEGIA**  
11:30 - 14:30 / 16:30 - 20:30

# TXIKI PARK

## UGAN

**ABENDUA:**  
1, 7, 14, 15, 21, 22, 28, 29  
**URTARRILA:**  
4

**ORDUTEGIA:**  
ostirala  
17:00 - 20:30  
larumbata  
11:00 - 14:00 / 17:00 - 20:30

*Eskuratu doan zure bonoa EMGIko  
dendetan erosketak eginez*

# ASTELENA HAUR PARKEA

## ASTELENA

**ABENDUA:**  
26, 27, 28, 29  
**URTARRILA:**  
2, 3, 4, 12, 19, 26  
**OTSAILA:**  
2, 9, 13  
**MARTXOA:**  
2, 9, 16, 23  
**APIRILA:**  
6, 13, 30

**ORDUTEGIA:**  
11:00 - 14:00 / 17:00 - 20:30

# GREMIOEN



## ANTENAK

**BALATZ** S.L.  
**Instalakuntzak eta konponketak antenak - telebista**  
**Bidebarrieta, 37** Tfnoa. 943 20 05 08  
 balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

## ELEKTRIZITATEA

Tfnoa. 943-530356  
 Mobila 688-674242  
 Barrena, 21 - 3. A  
**ALBERTO ELEKTRIZITATEA**  
 ALBERTO DASILVA FIDALGO  
 DASILVAALBERTO@HOTMAIL.ES  
**INSTALAZIOAK ETA MANTENIMENDUA**

## GARBIKETAK

**Limpieza Multiservicio Eibar**  
 Superficie mota guztietako garbiketa eta mantenimendu zerbitzua  
 Tfnoa. 943 254 615  
 Mobila 688 609 171 Barrena, 21 - 1. F

Ego Gain z/g  
 Tfnoa. 943 12 73 50  
 Faxa. 943 20 73 60  
 www.trinmer.com  
**trinmer**  
**TELEKOMUNIKAZIOAN PROFESIONALAK**

**ELECTRICIDAD CUADRA EC**  
 SERVICIOS DE ELECTRICIDAD  
 TELEFONOS: 943 70 08 95  
 943 82 00 27  
 FAX: 943 70 08 95  
 www.electricidadguria.com

**TREJO GARBIKETAK S.L.**  
 Tel: 943-752557  
 Faxa: 943-752556  
 16 Postakutxatila - Soraluze  
*Garbiketa eta mantenimendua*

## AROTZAK

**IÑAKI**  
 Egurrezko mota guztietako lanak Ateak - Tarimak Altzariak  
 Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 35 55

**GURIA**  
**ELEKTRIZITATEA**  
 Muntaiak eta proiektu elektrikoak  
 Matsaria 2 7. pabilioia  
 Tel. 943 70 08 95  
 Fax. 943 82 00 27  
 www.electricidadguria.com

## HODI-LIBRATZEAK

**ATAX**  
 — Hodi-libratzeak  
 — Saneamenduen garbitzea presio handiko makinariarekin  
 — Ur ateratzea ufaletan ondoren  
 www.desataxcos.com  
 LARRIALDIETARAKO (24 ordutan): 673 304 222

**SUKALDE ALTZARIAK**  
**AROZTEGIA**  
*Iparragirre Anaia*  
 F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27  
 Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92  
 Mobila: 657 79 56 78

**ulmar S.L.**  
**aluminiozko eta PVC-ko aroztegia baita toldoak, gortinak, estoreak etabar**  
 Txonta, 30 - 1. eta behea  
 Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50  
**ERAKUSKETA**  
**EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)**

# Informazio gehiagorako



943 20 67 76



## IGELTSEROAK

IGELTSERITZA



**CAMILO ALVAREZ** OROKORREAN

- Barne erreformak (sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)
- Gremioen koordinaketa

Jardiñeta, 25 - behea  
620 060 104 (Ernesto)  
600 465 789 (Fran)



**irazabal**  
JOSE MARIA IRAZABAL, S.L.

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK  
IGELTSERITZA ETA  
GREMIOEN KOORDINAKETA

azitain industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
[www.irazabal.net](http://www.irazabal.net)



Gasa  
Kalefakzioa  
Klimatizazioa  
Eguzki Energia

**Fontanería Jardines**

Tel. 943 206 913  
615 782 638  
615 782 637  
Fax. 943 254 929

Jardiñeta, 11 B  
[fontaneriajardines@euskalnet.net](mailto:fontaneriajardines@euskalnet.net)

## ITURGINTZA



**MUGICA**  
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,  
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,  
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN  
ERREFORMAK ETA ABAR...  
**HANSGRÖHE** KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18  
Tel. 943 20 10 30 - Faxe. 943 20 72 24

## KRISTALAK



**ACHA Kristaldegia**

ERREKATXU, 3an  
**KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK**  
[c.acha@euskaltel.net](mailto:c.acha@euskaltel.net)  
eta faxe: 943 20 39 03

## PINTURAK



Pintura orokorra  
Margotutako paperak  
Zoruen kolokazioa  
PVC zoruak  
Maketak  
Alfonbrak  
Kortinak  
Etxerakoak  
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxe.  
943 20 05 94  
T. Etxebarria, 8 - behea



**PINTURAS ARRATE, S.L.**

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A  
[parrate@terra.es](mailto:parrate@terra.es)  
Tel. 943 20 41 04 Faxe: 943 70 06 89



**MALVAR**  
PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea  
Tfnoa. eta Faxe. 943 700 900  
Mobila. 656 784 396



**VICTOR GONZALEZ FRAIZ**  
PINTURA OROKORREAN

BARNE eta KANPOko  
dekorazioa eta pintura,  
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,  
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-  
696-565394 / 943-030540  
[victor-fraiz@hotmail.com](mailto:victor-fraiz@hotmail.com)

## Hárek Umiak erakusketa kalean

Eibarko "gerrako umeen" inguruko erakusketa berezia ikusteko aukera izango dugu urtarrilaren 20ra bitartean, atzoz geroztik Espainiako Gerra Zibiletik atzerrira ihesi joandako hainbat eibartarrek lagatako argazkiak kalean ikusgai daude eta. 17 argazki dira eta horiekin, modu sinbolikoan bada ere, historian ezagutu den umeen ebakuazio handiena izan zena ezagutarazi eta gogoratu nahi dute. Horretarako erakusketa kalera atera dute: Untzagako Jubilatutxaren fatxadak Errusiako Jarkok udalekuko umeak erakutsiko ditu, udaletxeko arkupeetan umeak hartu zituzten lau herrialdeak (Errusia, Frantzia, Erresuma Batua eta Belgika) ordezkaturik egongo dira, Untzagako harmailetan herriko ume haien izenak irakurtzeko moduan aurkituko ditugu eta goiko aldean etxera bueltan 1964an "rusoei" egindako argazkia. Toribio Etxebarria kalean, berriz, parokiako horman, Ingalaterran umeentzat jarri zuten etxetzar haietako bat ipini dute ikusgai. Eta gainontzeko 10 ar-



*Errusiako Jarkok udalekuko umeak ikus daitezke fatxadan.*

gazkiak Kakalardo aldameneko burdinezko horma modukoan kokatu dituzte. Erakusketa atzo bertan Udalak gerrako ume haiei omenaldia egiteko ekitaldia biribiltzera dator.



## Hankamotxak taberna saioan

**Bertso saioa eskaintzen jardun zuten** Hankamotxak bertso eskolakok barixaku gauean Guridi tabernan. Bertsolari gazteek hainbat gairen inguruan botatako bertsoek giro polita sortu zuten gaueko lehenengo orduetan.

## Eibarrerazko egutegiak

Datorren urterako, 2013rako 3.000 poltsikoko egutegi egin dituzte Ustekabe Fanfarrekoek eta doan banatzen dihardute: "Eki-*mena Badihardugu elkarteak eta Udalak antolatutako Eibarko euskararen inguruko ikastaroari esker bururatu zaigu*".



## Zeramika Eskolako jaiotza

**Eibarko Zeramika Eskolakoek**, urteroko ohiturari jarraituta, zeramikaz egindako piezekin osatutako jaiotza ipini dute Portalean ikusgai. Sarreran kultur etxera sartzen diren guztiei harrera egiten dago argazkian ikus dezakezuen jaiotza originala.

## Armeriaren historiari errepassoa ematen


**Gaur arratsaldean inauguratuko dute Portalean** "Armeria Eskola atzo, gaur eta bihar" izenburuko erakusketa. Urtarrilaren 13ra arte ohiko ordutegian (martitzenetik domekara, 18.30etatik



20.30etara) zabalduko duten erakusketa, Udalak, Armeria Eskolak berak eta Teknikerrek elkarrekin bultzatutako "Eibar industrial" teknologia: atzo, gaur eta bihar" programaren parte da eta azken ehun urteotan eskolan zein herrian bizi izandako etengabeko aldatetarako zein horietara moldatzeko egindakoak erakutsiko die bisitariei.

## Iantzirekin giro ederrean

**Euskararen erabilera sustatzeko hitzaldia** ematera etorri zitzaizgun martitzenean Julian Iantzi aurkezle ezaguna, ...eta kitto! Euskararen Elkarteak gonbidatuta. Hizlariak beste batzuetan jendetza erakarri ohi du, baina aste honetakoan ez da hala gertatu, hitzaldiak Ipuruan Eibar eta Malaga taldeek jokatu zuten partidarekin bat egin eta foballa garaile irten baitzen. Hala ere, hitzaldira joan zirenek ederto pasatu zuten Lesakarrak "El Conquistador del Aconcagua" eta beste lehiaketetan bizi izandakoak nola kontatzen zituen entzuten.



## Tattoo Circus-ek asteburua beteko du

Gaur arratsaldeko aurkezpenarekin hasi

eta domekara bitartean, Eibarko Gazteteak Tattoo Circus presoen aldeko ekimen berezia hartuko du, egitarau zabalarekin: gaur 18.00etan "Una vision desde dentro" hitzaldia emango dute eta 20.00etan Napoka Iria eta Todo o Nada taldeek kontzertua emango dute. Zapatuan goizetik ekingo diote egitarauari, 10.00etatik 12.00etara martxan egongo diren serigrafia eta txapa tailerrekin. 12.30etan "Cárcel y mujeres" hitzaldia emango dute eta 14.00etatik 16.00etara bazkaltzeko tartea hartuko dute. Ondoren, 16.00etan Presoen Aldeko Subastari ekingo diote Karrika Tabernan eta, hori amaituta, Etxerat-ek "Euskal Preso Politikoak eta bere senideak" izenburuko hitzaldia eskainiko du




(17.30etan). Iluntzeko 20.00etan kabare-

tak hartuko dio erreleboa: Iseltetik (oihal-ikuskizuna), Expresamente (uztai-ikuskizuna), Trival fusión (dantza), Nariz Roja Clown eta Bloody Poison Team ikusteko aukera izango da. Gauean Soraluzeko gaztetearekin jaiak jarraituko du (Eibartik Soraluzera joateko autobusak antolatuta dituzte, orduoro gauerditik hasita). Eta domekan berriz goizetik ekingo diote egitarauari:

10.00etatik 14.00etara banatzaile alternatiboen topagunea egingo da, 14.00etatik 16.00etara bazkaria, 16.00etan "Cárcel = Tortura" kanpaina aurkezteko hitzaldia hasiko da eta jarrera horren gaineko mahai-ingurua. Informazio zehatzagoa <http://eibartattoocircus.blogspot.com.es> helbidean aurkituko duzue.

## Alex Ubagoren kontzertua eguaztenean

Estreinatuta berri duen "Mentiras sinceras" diskoa zuzenean aurkeztuko du Alex Ubago abeslariak, eguaztenean (hilaren 26an) Coliseoan, 21.00etan hasiko den kontzertuan. Sarrerak aldezturik erosteko aukera dago, Eibarren Terraza, Birjiñape, Portalea, Trinkete, Arno eta Caserio tabernetan; Elgoibarren, Lanbroan; Ermuan, Xaguan; eta Durangon, Gambriñusen. Euro bat gehiago ordainduta, interneten [www.jaiproductions.net](http://www.jaiproductions.net) helbidean ere erosteko moduan ipini dituzte. Aurresalmenta kontzertu eguneko goizera arte martxan izango da eta, sarrerarik geratuko balitz, lehiatilan ipiniko dituzte salgai kontzertua hasi aurretik, 25 eurotan.




## Angel de la Torreren margolanak Topalekuan

Domekara arte egongo dira ikusgai Topalekuan Angel de la Torre artistaren margolanak, gaur 19.00etatik 21.00etara eta bihar eta etzi, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.

## Deporreko argazkilarien lanak

Aurreko barixakuan inauguratu zuten Portalean urtarrilaren 6ra arte ikusgai egongo den Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoen erakusketa. Bertan Jose Luis Martínez, Mikel Orozko, Bakarne Elejalde, Pedro Arriola, Jose Luis Irigoien, Jose Vila, Pedro Mora, Eduardo Magunazelaia, Jose Ignacio Aizpurua, Carlos Ramos, Einer Rodríguez, Juan Antonio Palacios, Aitor Divasson, Fernando Retolaza, Federico Cuenca, Juan Manuel Lucena, Enrike Albistegi, Virginia Arakistain eta Bixente Eizagaetxeberriaren argazkiak ikusteko aukera dago, martitzenetik domekara, 18.30etatik 20.30etara.



## laburrak

### PORTALEA GABONETAN

Portalea kultur etxeak atek itxiko ditu abenduaren 24, 25 eta 31n eta urtarrilaren 1ean eta 6an, Gabonak direla eta.

### IRAKURKETA KLUBAK

Juan San Martin Liburutegiak martxan dauzkan euskarazko zein gaztelaniazko irakurketa klubetan plaza libreak gelditzen direla eman dute aditzera. Dohainik dira eta izena eman nahi duena Liburutegira zuzenean jo dezake edo, bestela, blogean sartu.

### KARTEL LEHIAKETA

Datorren urteko Aratosteetarako kartela aukeratzeko "Aratosteak 2013 Eibarren" lehiaketa deitu dute. Parte hartu nahi dutenek Pegorara jo beharko dute informazioa eskatzera zein lanak entregatzera. Epea urtarrilaren 16ra arte egongo da zabalik.

### GARAGUNE

Eskulan eta artisau lanak salgai ipini zituzten atzo Garagunekoek eta gaur ere T. Etxebarria kalean izango dira, San Juan kaleko egoitzan eurek egindakoak saltzen.

Behin baino gehiago izan da zaletuen ahotan harrobiaren gaia. Eibar KEko lehen taldean eibartarrak apenas izateaz kexatu direnak ere ez dira gutxi. Badira eibartarrak profesional mailan dihardutenak, gure taldearena baino maila altuagoetan ere. Zaindu ere, zaintzen da harrobia; gero jokalaria konkretuki 2. B mailara egokitzea beste kontu bat bada ere. **Fran Garagarza** Eibar KEko egiturari zuzendari teknikoaren kargua duenak dioenez, "Eibarko jokalaria bereziki jarraitzen ditugu. Harremanak baditugu eurekin eta, ahal den neurrian, gauzak adosteko gogoia ere. Bestalde, hiru urtetik hona gehitu egin dugu kluba eibartartzeko asmo hori, batez ere txikienei dagokienez".



## Harrobia zaintzeko ahalegin berezia

**G**ure eskolan diharduten ume guztiak (2002-an, 2003an eta 2004an jaiotakoak) eibartarrak dira", diosku Garagarzak. Eta, hortik gora ere, alebinetatik ohorezko jubenetaraino, 124tik 72 Eibarkoak dira. Zuzendari teknikoak dioenez, "garrantzia ematen zaio Eibarko jendea izateari eta, etxekoekin mailari eustea zaila dagoenean josten da kanpora, beti ere hemengoak baino jokalaria hobekak direnak ekartzeko". Beste bederatzita taldeekin jarduten du Eibar KEk elkarlanean, euren hitzarmena sinatu eta gero: Urki, Eibartarrak, Abadiño, Zaldua, Berriz, Bergara, Arrasate, Aloña Mendi eta Soraluze. Nesken kasuan, "Urki-ekin dugu kolaborazio bereziena: euren infantiletan dihardutenak jauzia ematen dute gure jubenetara".

2. B mailan jokatzen duen talde nagusiaren exigentzia mailak askotan ez du ahalbidetzen eibartarrak bertan izatea eta, "beste batzuetan, eu-

rei ez zaie gure proposamenak interesatzen", dio Garagarzak. Play off-etan sartzea izaten da urteroko helburua eta "erdi-profesional mailan dauden eibartarrak guztiak kontrolatzen" dituzte Eibar KEko teknikoek: "Aurten, esaterako, ahalegin berezia egin dugu Errastirekin eta berak ere apostu serioa egin du gurekin".

### 3. mailako talderik ez

Aurten egindako berregituraketan, bestalde, 3. mailako taldea kendu dute. Horrek ere badu eraginik: "Hasieratik amaierarako bidea murrizten da horrela. Jubenilak fidelizatzea jo dugu, eurekin zubia egiteko; eta aukerak bilatu zaizkie inguruko taldeetan. Gureak dira eta jarraipena egingo diegu, bueltatzeko aukera izan dezaten".

Aurrekontu murriztagoa erabiltzeak "aukera gehiago eskaintzen du harrobiarekin lan egiteko". Horrela, lehenengo taldean bertan, "21 jokalaririk, sei kenduta, beste guztiak



**Fran Garagarza Eibar KEko zuzendari teknikoa.**

euskaldunak dira. Gure ikuspegia da, 2. B mailan behintzat, denak hemengoak izatea", dio zuzendari teknikoak.

### Helburuak betetzen

Harrobiko taldeak martxa ona daramatzate eta Urko (Ohorezko jubenilak) oso goian dago, Athletic eta Realarekin lehia. "Jubeniletako bigarren taldekoek, bestalde, aurkari nagusiagoekin lehiatu

behar dute, 2. urtekoekin, eta horrekin sufritzen ikasten dute. Euskal Ligako kadeteak maila handian dihardute konpetitzen eta kanpoan hobeto moldatu dira. Denek dute hobetzeko margena eta 2. itzulian bide horretatik joko dutela espero dugu". Txapelketa faserako sailkatu dira asko eta, alebinen kasuan, baloiak markatzen du euren progresioa: "Helburua da baloia edukitzea eta ausartak eta erasokorrak izatea", dio Fran Garagarzak. Talde teknikoaren espirtua laburtuz, "alebinetako eta infantiletako hastapen fasea, kadeteetako ontze edo madurazio fasean du jarraipena, jubeniletako perfektionamenduan amaitzeko". Zuzendari teknikoak dioenez, "akatsak formazio esparruan sartzen dira. Jokalaria da garrantzitsua eta emaitza ondorioa besterik ez".

Aipatutakoari jarraituz, "harrobiko jokalarien kasuan, guztiek jokatu behar dute gutxieneko bat (%30) eta aldaketa



**Capa (argazkian Muniain-ekin) bigarren taldetik igo da, Gaizka Garitanorekin batera.**

Eibar KEko harrobia	JOKALARIAK	EIBARTARRAK
Alebinak (2001) .....	16	16
Infantil Txiki (2000) .....	18	16
Ohorezko Infantilak (1999) .....	18	9
Ohorezko Kadeteak (1998) .....	18	10
Euskal Ligako Kadeteak (1997) ...	18	7
Jubenilak (1995-96) .....	18	8
Ohorezko Jubenilak (1994-95) ...	18	6



guztiak egin behar dira. Hasta-penetan, gainera, postu aldatuak ere egiten dira". Fobaliletik aparte, ikasketen jarraipena egiten diete, gainean egonik eta nola zaintzen diren arduratuz: "Flexibleak izaten ahalegintzen gara, baina ez arduragabeak". Pertsonalizatze bidetik jotzeko asmoa dute, "entrenamendutik aparte, defizitak konpontzeko".


### Harrobiko bost

Erdozia, Abaroa, Capa, Arregi eta Xabi atezaina dira iaz 3. mailan jokatzeko zuten taldetik talde nagusienean jokatzeko duten harrobiko bost ordezkariak. Arregiren kasuan, jubenetik Eibar KEan jardunda. "2. B mailan profesional bezala dihardugu hitz egiten eta asko eskatzen da, kalitatea zaindu behar delako eta zaletua ere ez delako edozerekin konformatzeko".



Larreategik orain dela aste bi gola sartu zion Eibarri.

Gaur egun zelaietan gertatzen diren hainbat gauza zatarren errua gurasoei botatzen zaie, "haien espektatibak errealitatearekin zerikusirik ez dutelako". Franek ez du kaltegarri ikusten gurasoak partiduetara joatea, "baina jakin behar dute eurek direla ispilua neska-mutilentzat eta balore batzuk eskaini behar dizkietela. Gurasoek ere jokatzeko dute". Iaztik bilerak egiten dituzte noizbehin-ka eurekin, "mutilak, klubak



Landak Elgoibarren jokatzeko du egun (argazkian Eibarko elastikoarekin).

eta gurasoek lerro berari jarraitzeko". Oso gutxi dira lehenengo taldera igo daitezkeenak: "Gipuzkoan 3.000 lagunetik bakarra heltzen da Realera". Mikel Oiarzabal eibartarrak etorkizun handia du eta Realean dago jokatzeko, Euskal Ligako kadeteetan. Beste askoren kasuan moduan, bere ibilbidea Eibartik kanpo egiten.

### EIBARKO FOBALLARI PROFESIONALAK (edo ia)


**1. mailan:** Athletic (Markel Susaeta eta Iñigo Ruiz de Galarreta); **2. A mailan:** Guadalajara (Nestor Susaeta); **2. B mailan:** Jon Errasti (Eibar), Alex Albistegi (Real Unión), Jon Larreategi (Amorebieta), Jon Apraiz eta Josu Hernández (Sestao); **3. mailan:** Iker Seguín (Español B), Aitor Seguín (Baskonia), Borja Luis (Cultural Durango), Asier Iriondo (Leioa) eta Kepa Osoro, Gorka Gurrutxaga eta Julen Landa (Elgoibar).

### Málagarekin berdinketa

Martitzenean Ipuruan jokatutako partiduan, eibartarrek bana berdindu zuten Málagarekin eta urtarrilaren 8an itzulerako neurketa izango dute Rosaledan. Zaletua pozik dago taldearekin, eta baita Gara-garza zaletuekin: "Meritua dute, mila lagun San Mamesera joanda, Eskozia La Bravakoak Lleidara furgoneta alokatuz". Iaztik hona hainbeste aldatu da taldea? "Aurtengoa iaz ondo egindako gauzen ondorioa da. San Mamésen, Errasti, Navas eta Dani kenduta, beste guztiak iazkoak ziren".



Nestor Susaetak 2. A mailako Guadalajaran jokatzeko du gaur egun.



**Funeuskadi Eibar**  
SERVICIOS FUNERARIOS

Bellatokia Funeuskadi Eibar:  
Otaola, 27

Bulegoua:  
Eizabameta, 6

**24 orduko zerbitzu iraunkorra**  
© 943 82 15 39 - www.funeuskadi.com

• Eibar • Donostia • Bilbo • Barakaldo • Leioa • Getxo • Sestao • Portugalete • Santurtzi • Galdakao • Sopupe • Espinosa de los Monteros •

## berriak



### SQUASH

Alberto Ferreiro azpitxapelduna izan da squash-eko Euskadiko Masterrean, finalean Javi Villanuevarekin galduz. Torneoa Hondarribian jokatu zen asteburuan eta eibartarrak maila bikaina erakutsi zuen, finalerdietan Oscar Riguera kanporatuz.

### PILOTA

Eibarko Klub Deportiboko Ruiz-Larrauri bikoteak Kluben Arteko txapeketako jubeniletako 3. mailako finala jokatu du bihar Zestoan.. Liga lehenengo postuan amaituta, zuzenean iritsi dira final horretara, Lazkao-ko bikoteari aurre egiteko.

### IGERIKETA

Igeriketako XXIV. Gabon Kopa jokatu da bihar Ipurua kiroldegiko igerileku estalian. Txapelketa arratsaldeko 16.00etan hasiko da eta 20.00etan amaituko.

## Eneko Agirrezabal berriro garaile Arraten

Iaz moduan, azken metroetan berreganatu zuen senior mailako proba, oraingoan Sergio Román-i irabaziz azken txanpan. 400 metroren faltan Románek 30 bat metro ateratzen zizkion gero irabazle izango zenari; baina Agirrezabalek, esprint bikaina eginez, nagusitu zen. Jonan Rodríguez eibartarra zazpi-garren sailkatu zen. Emakumeen lasterketan, Onditz Iturbe bizkaitarra nagusitu zen. Eibartarrei dago-kienez, Pello Osoro 4.a izan zen promesetan eta Asier Selas 5.a maila berean; Ibrahim El Moussaoui 4. postuan amaitu zuen juniorretan, postu bera eskuratu zuen Gaizka Cortésekin alebinetan eta bosgarrena izan zen Julen Terán infantiletan.



Lasterketa politik ikusteko aukera izan zen. RAMON BETIA

## Eski irteera urtarrilaren 12/13ko asteburuan



Somport eta Astunera LHko 5. eta 6. mailako eta DBHko 1. eta 2. mailako ikasleentzat eta baita 18 urtetik gorakoentzat: helduek Villa Anayet hotelen hartuko du ostatu eta txikiek Tritón aterpetxean. Prezioa 62 eurokoa izango da helduentzat (bidaia eta ostatua pentsio erdian) eta 75ekoa haurren (bidaia, ostatua pentsio erdian, forfai eta alkiler). Interesatuak izena eman dezakezue Deporren eguazten eta eguenetan, 19.30etatik 20.30etara.

## Fernando Errekaldere marka berria Pirinioetan

Eibarko mendizaleak lehen ere igoak zituen Pirinioetako 212 hirumilakoak, baina oraingoan ertzetatik egin ditu gain guztiak. 52 egun behar izan ditu horretarako eta, orain dela urte bi moduan, Marta Alejandre eta Juan Carlos Jiménez izan ditu abenturako lagun. Hirurak mendi gidariak dira eta, guztira, 64.666 metroko desnibel positibo osatu dute, ertzetatik 341 ordu eta 37 minutu eginez.




## Hierros Anetxek ondo irabazizion Pegamo Bera Berari

Lidergoa galdu bazuten ere, Txema Isasaren mutilek denboraldi bikaina dihardute egiten eta, azken jardunaldian, goragoko mailatan jardundako Pegamo Bera Berari irabazi zioten Unben (19-10). Emaizta horrekin, 4. postuan kokatu dira eibartarrak, Independiente liderrengandik lau puntura. Hurrengo partiduan L'Hospitalet bisitatu-ko dute (eibartrengandik bost puntura daude).




## Binakako txapelketa Astelenan 25ean

Titin III.a eta Merino II.a gaur egungo txapelkunek Aimar Olaizola eta Ibai Zabala izango dituzte aurrez aurre martitzenean Astelenan jokatu den jaialdiko partidua nagusian. Asegarceko pilotariak ikuste-ko aukerarekin batera, Olaizola II.a lau eta erdiaren barruan jantzi berri duen txapelaren ondorengo lehen partiduan izango da Katedralean.




# laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, JUNE, hillairen 7xan hiru urte egin zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, Ander; domekan bi urte egingo dozuz-eta. Famelixaren partez.




Zorionak, GARI, domekan bi urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, NORA, gaur hiru urte egitten dozuz-eta. Segi beti bezain alai. Muxuak danon partez.




Zorionak, MAIA. hiru urte egin dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, MARKEL, haraiñegun bederlatzi urte egin zenduaz-en-eta. Etxekuen partez.




Zorionak, AITOR, martitzenian bi urte egingo dozuzelako. Muxu haundi bat famelixaren eta, batez be, Pabloren partez.



Zorionak, NORA, 17xan sei urte egin zenduaz-en-eta. Patxo potolua gurasuen eta, batez be, Iker eta Maialenen partez.



Zorionak, UNAI, hillairen 24an bi urte egingo dozuzelako. Muxu haundi bat aitatxo eta amatxoren partez.




Zorionak, ANDER! Urtebete egingo dozu, guretako polittena eta alaxena izan dana. Maitte zaittugu. Etxekuen partez.




Zorionak, NORA, hillairen 3an urtiak egin zenduaz-en-eta. Patxo mordua, printzesa, zure lagunen partez.




Zorionak, MAITENA, hillairen 7xan bi urte egin zenduaz-en-eta. Aitatxo eta amatxoren partez.




Zorionak, UNAX (hillairen 20xan sei urte) eta MARKEL (27xan urtebete) urtiak egingo dozuez-eta. Muxu haundi bat asko maitte zaittuegun famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MARTIN (hiru urte) eta PAULA (zazpi), zuen urtebetetzian. Muxu haundi bat osaba eta izekoren partez.



Zorionak, amama JOSEPA gaur 91 urte bete dozuz-eta. Laztan bat Garoa, Enara, Haizea, Danel eta Paulen partez.



Zorionak, LIBE, gaur bederlatzi urte egitten dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.

## zineaColiseoan

(1 ARETOAN)


**21ean: 22.30**

**22an: 17.00, 19.45, 22.30**

**23an: 17.00, 20.00**

"El hombre de los puños..."

Zuzendaria: RZA



(2 ARETOAN)


**21ean: 22.30**

**22an: 17.00, 19.45, 22.30**

**23an: 17.00, 20.00**

"En la casa"

Zuzendaria: François Ozon



(ANTZOKIAN)


**21ean: 22.30**

**22an: 22.30**

**23an: 20.00**

"El hobbit: un viaje..." 3D

Zuzendaria: Peter Jackson




(ANTZOKIAN)

**22an: 17.00, 19.45**

**23an: 17.00**

"El origen de los Guard" 3D

Zuzendaria: Eric Darnell



## BARIXAKUA 21

### TATTOO CIRCUS

**17.00.** Tattoo Circus aurkezpena.

**18.00.** Hitzaldia: "Voces silenciadas: realidades de las mujeres (ex)presas - Cárcel y mujeres".

**20.00.** Kontzertua: Napoka Iria eta Todo o Nada. Gaztetxean.

### INDIANOKUA

**18.00.** Comic Life. Indianokua gaztelekuan.

### OLENTZERO

**18.00.** Olentzero opariak banatzen, Zona 10-en eskutik. Diskoteka. Ibarkurutzen.

## ZAPATUA 22

### TATTOO CIRCUS

**10.00-12.00.** Serigrafia eta txapa tailerra.

**12.30.** Hitzaldia: "Cárcel y mujeres".

**16.00.** Subasta eguna, Karrika tabernan.

**17.30.** Hitzaldia Etixerat-en eskutik.

**20.00.** Kabareta: Iseltek, Expresamente, Danza Tribal Fusión, Nariz Roja Clown eta Bloody Poison Team (gauean Soraluzeko gaztetxean jaia). Gaztetxean.

### OLENTZERO

**17.30.** Olentzerori gutuna ematea eta fatxadatik jaistea. El Corte Inglés-ean.

### INDIANOKUA

**18.00.** Dantza txapelketa eta Gabon apainketa. Indianokua gaztelekuan.

## DOMEKA 23

### TATTOO CIRCUS

**10.00-14.00.** Distrixen topagunea.

**16.00.** Hitzaldia: "Cárcel = tortura".

**17.30.** Mahai-ingurua: Herrera, Etixerat, Salhaketa.

**20.00.** Kontzertua: Gaitze, Kabernikola Terrier eta El Fuego y la palabra. Gaztetxean.

### ABONTZATOMASAK

**12.30.** Abontzatomasak, Abontzako Iturrira elkartearen eskutik: salda, txistorra, umeendako jolasak... Egigurentarren-eko parkean.

### GABON KONTZERTUA

**13.00.** Usartza Txistulari Bandaren Gabon kontzertua. Udaletxean.

### OLENTZERO

**17.00-20.00.** Olentzero umeentzat opariak banatzen. Bossan.

### INDIANOKUA

**18.00.** Gabon apainketa eta Play Wii. Indianokua gaztelekuan.

### GABON KONTZERTUA

**20.00.** Sostoa abesbatzaren Gabon kontzertua, Caritas-en alde. San Andres elizan.

## ASTELEHENA 24

### OLENTZERO

**17.00.** Olentzerok opariak banatzea, udaletxean.

**18.00.** Kalejira Pantxika, Kaleetan Kantuz abesbatza, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako soinu ikasleek eta trikitilariak lagunduta. Untzaga, Calbetón, Bidebarrieta, Urkizu, Errebal, Julian Etxeberria, Toribio Etxebarria, Untzaga. Kalejira ondoren Olentzerok azken gutunak jasoko ditu udaletxean.

## EGUAZTENA 26

### GUAI

**11.00-14.00 eta 17.00-20.30.** Guai Gabonetako parkea. Astelena frontoian.

### GABONETAKO TAILERRA

**17.30.** "Gabonetako Arbola" tailerra, 3-12 urtera arteko umeentzat. El Corte Inglés-ean.

### INDIANOKUA

**18.00.** Opariak estrenatzea. Indianokua gaztelekuan.

### KONTZERTUA

**21.00.** Alex Ubago, "Mentiras sinceras" lan berria aurkezteko kontzertuan. Coliseoan.

## EGUENA 27

### GUAI

**11.00-14.00 eta 17.00-20.30.** Guai Gabonetako parkea. Astelena frontoian.

### GABONETAKO TAILERRA

**17.30.** "Elur-panpina" tailerra, 3-12 urtera arteko umeentzat. El Corte Inglés-ean.

### INDIANOKUA

**18.00.** Opariak estrenatzea. Indianokua gaztelekuan.

### ODOL-ATERATZEA

**18.00.** Odol-emaileentzat odol-ateratzea, Odol-Emaleen egoitzan (Pagaegi, 5).

### EIBARKO HERRIRA

**19.00.** Jose Luis Irigoien argazkilariak Eibarko Herrira-ri emandako argazkien erakusketa eta salmenta. Topalekuan.

## hildakoak

- Miguel Marín Montero. 81 urte. 2012-XII-5.
- Felix Alonso Cabria. 76 urte. 2012-XII-13.
- Carmen Sáez García. 91 urte. 2012-XII-13.
- M<sup>o</sup> Carmen Guridi Olalde. 85 urte. 2012-XII-15.
- Micaela Honrubia Caverro. 89 urte. 2012-XII-16.
- Manuel Dopazo Godoy. 92 urte. 2012-XII-16.
- Lorenzo Amuategi Larrañaga. 69 urte. 2012-XII-16.
- Antonio Beistegi Ondarra. 92 urte. 2012-XII-18.

## jaiotakoak

- Irai Madarieta Gómez. 2012-XII-10.
- Leire Aranzeta Martinikorena. 2012-XII-10.
- Nora Eizagirre Arrieta. 2012-XII-13.
- Mikel Zenarruzabeitia Gallastegi. 2012-XII-14.

## HOROSKOPOA

### ARIES

Nola pasa duzun udazkena! Gaixorik ez bazeunden, gerriko minarekin edo beste arazo batzuekin. Ea nolakoa den negua.

### TAURUS

Pinoixoren istorioa ezagutzen duzu? Ba egurrezkoa ez zarelako, bestela sudur luze-luzea izango zenue. Egitan!

### GEMINI

Alboan duzun pertsona horri esker, beste era batean begiratzen diozu bizitzari. Bera gabe ez zinake zu izango.

### CANCER

Esker onekoa izan zaitez, eta egiten dizkizuten opariak ez bazaizkizu gustatzen ere, aurpegi ona ipini. Arren.

### LEO

Badakizu Gabonetan asko jan eta edaten dela. Ederki asetuko zara egun hauetan, baina gero kaloriak erre beharko dituzu.

### VIRGO

Nola biguntzen zaigun bihotza sasoi honetan. Ondo dago, baina hobe urte osoan besteei laguntzeko prest egotea.

### LIBRA

Olentzero, Erregeak eta nahi duena etortzea gustatuko litzaizuke, opari gehiago izatekotan. Materialista hutsa!

### SCORPIUS

Asteburu bikaina pasatuko duzu, baina zoriontasun horrek ez du jarraipenik izango Gabonetan. Zer gertatuko da?

### SAGITTARIUS

Pauso garrantzitsua emango duzu zure bizitzan, aurrerapauso ederra izango dena. Aprobetxatu momentu on horiek.

### CAPRICORNIUS


Telebista handiagooa erositako ez duzu ezer konponduko. Okulistarengana joan; ez dago besterik. Betaurrekoak ipini!

### AQUARIUS

Ederra egin duzu. Zure intentzioa ez da txarra izan; baina, tira, askotan ez duzu pentsatzen gauzak egiten hasi aurretik.

### PISCIS

Polita izango litzateke Olentzero izatea, ezta? Besteei zoriona eramatea, umei irrifarra sorraraztea... Ez du preziorik.



## erakusketak

- ✓ **Abenduaren 22ra arte**  
*TATTOO CIRCUS.* Erakusketa-subasta.  
*Karrika tabernan.*
- ✓ **Abenduaren 23ra arte**  
*ANGEL DE LA TORRE.* Margo erakusketa.  
*Topalekuan.*
- ✓ **Abenduaren 31ra arte**  
*BIXENTE EIZAGAETXEBERRIA.* Argazkiak.  
*El Ambigú tabernan.*  
*PATXI JATO.* Argazkiak.  
*Portalea tabernan.*
- ✓ **Urtarrilaren 6ra arte**  
*KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEA.* Portalean.
- ✓ **Urtarrilaren 13ra arte**  
*“ARMERIA ESKOLA ATZO, GAUR ETA BIHAR”.*  
Portalean.
- ✓ **Urtarrilaren 20ra arte**  
*HAREK UMIAK (GERRAKO EIBARKO UMEAK).*  
Kalean.

## lehiaketak

- ✓ **“Aratosteak 2013 Eibarren” kartela**  
Informazioa eta lanak aurkeztea: Pegoran, *urtarrilaren 16ra arte.*
- ✓ **XXVIII. Naruzko Zezen Sariak**  
Antzez Artikulu eta Gidoientzako. Informazioa eta lanak aurkeztea: Hezkuntza Esparruan, Egoitza Zentruan, *urtarrilaren 23ra arte.*
- ✓ **Toribio Etxebarria Sariak 2012**  
Informazioa eta lanak aurkeztea: [www.bicberrian.com](http://www.bicberrian.com) / *otsailaren 6ra arte.*

	6		7			2		
	9			2	1	4		
		4						8
				9	8	6		
3			6		2			4
		9	4	5				
2						5		
		6	5	8			2	
		7			3		1	

## farmaziak

- ✓ **barixakua 21**  
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **zapatua 22**  
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)  
GAUEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
- ✓ **domeka 23**  
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **astelehena 24**  
EGUNEZ **Las Heras Laramendi** (Calbetón, 19)  
GAUEZ **Las Heras Laramendi** (Calbetón, 19)
- ✓ **martitzena 25**  
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **eguztena 26**  
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- ✓ **eguna 27**  
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)  
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)
- ✓ **barixakua 28**  
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 6)  
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

## SUDOKUA

2	8	5	1	3	6	8	7	4
7	1	4	9	8	5	2	3	6
6	8	3	7	4	2	9	1	5
4	7	1	8	6	3	5	9	2
9	2	6	5	7	4	1	8	3
3	5	8	2	1	9	6	4	7
5	3	9	4	2	1	7	8	6
1	4	7	6	5	8	3	2	9
8	8	2	3	9	7	4	5	1

AURREKOAREN EMATZA

## telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea 943 70 07 99
- Debegesa .....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola .....901 20 20 20
- Naturgas .....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
- Gurutze Gorria...943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia .....943 03 25 00
- Torrekoa .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.50etara ordu, 15.00, 15.50etatik 18.50etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.50etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Laneguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Egutegia: 15.00. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 16.40 eta 20.40.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egutegia: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.15. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutegia: 07.47etatik 20.47etara ordu. 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egutegia: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egutegia: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Pisua salgai J.A. Mogel auzoan. 3 logela, sukalde-jangela eta kamarotea. Dena kanpora begira. Prezio onean. Tel. 645-776200.
- Pisua salgai Eibar erdialdean (Eibarko Txikito). 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Iggogailua. 149.000 euro. Tel. 672-622774.

### 1.2. Errentan

- Pisua alokagai Elgetan. 2 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainu. Iggogailua eta kalefakzioa. Dena kanpora begira. Tel. 606-083992.
- Pisua alokagai Bidebarrieta kalean. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Guztiz berritua. Dena kanpora begira. Tel. 652-764566.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Taberna baten %50 traspasoan. Aukera jornada osoko lanaldirako. Negozioa martxan. Tel. 653-021169.

### 3.2. Errentan

- Beheko lokala alokagai Ubitxan. Sarrera kaletik. 100 m<sup>2</sup>. Tel. 617-688311.
- Lokala alokagai Otaola etorbidean, Unibertsitate Laboralaren ondoan. 25 m<sup>2</sup>. Baita kuadrilientzat ere (ez adin txikikoak). Tel. 681-303507.
- Lokala alokagai Tiburzio Anitua 10ean (Amaña). Gazteentzat egokia. Tel. 696-996175.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da asteburuetan edo jaiegunetan gaixoak zaintzeko. Tel. 669-179522.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 605-720298.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 681-065683.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 686-052084.
- Gizonezkoa eskaintzen da kamarero jarduteko, nagusiak zaintzeko etabar. Tel. 692-332871.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarera jarduteko etabar. Tel. 627-162936.
- Emakumea eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko, garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 654-743313.
- Gizonezko euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 638-241910.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 685-724861 eta 943-748899.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 636-895153. Begoña.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 616-690415.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 680-121252.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 626-946905.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 636-517025.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 646-458464.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 638-422524.
- Gizona eskaintzen da edozein lanerarako. Tel. 622-139912.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, sukalde-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 605-720298.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 698-604531. Julia.
- Emakumea eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko, garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 608-474923.
- Gizonezkoa eskaintzen da baserriak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko etxean zein ospitalean. Tel. 688-812845.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdur/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxea garbitzeko. Orduka. Erreferentziak. Tel. 638-233739.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 617-084256. Angelica.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Tel. 627-162936.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 664-065826.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 689-436454.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 654-744313.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 617-571210.
- Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko: ostalaritzan, eraikuntzan, ... Tel. 644-506655.
- Emakumea eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko, nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 605-720298.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 15 urteko esperientzia. Tel. 680-463892.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 671-207662.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-824278.

### 4.2. Langile bila

- Neska euskalduna behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 648-707376.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- Irakasleak partikularrik ematen ditu. Talde txikiak. Deitu, eta ez galdu kurtsoa. Tel. 685-739709.
- Bibolina jotzen ikastea nahi duzu? Metodo erraza eta dibertigarria. Asteburuetan. Merke. Ume eta helduentzat. Tel. 679-740061.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Haririk gabeko telefonoa (Panasonic) eta MP4 Topo berria salgai. 25 euro. Tel. 943-120030.
- Estanko lizentzia saltzen da, El Corte Inglés-aren ondoan. Tel. 645-996011.

### 6.2. Eman


- Bi urteko husky umea oparitzen da. Etxean egoten ohitua. Tel. 659-764487.
- Katuak oparitzen ditut. Helduak dira. Tel. 615-458103.

## 5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

**ZEZEN  
BIDE**




**AUTO  
ESKOLA**



**ORDUTEGIA:  
09.30-13.00  
15.30-20.30**

## GIDA-BAIMENAK

San Andres, 1 ac  
Tel. 943 20 34 45  
**EIBAR**



# MERKATU PLAZA

**100€** ko EROSKETA  
EGINDA



**OPARI LOTE 1  
DOHAINIK 1**

EROSKETA


**EROSKETA**

Abenduaren 11tik 31ra edo dagoena amaitu arte  
Lote bat lagun bakoitzeko  
Ticket-ak pilatu daitezke

# Gabonetan Gasteizera etorri eta plan onenez gozatu



**Izotz-pista eta izotz-txirrista - Floridako Jaiotza ikusgarria**  
**Musika kalean eta hiriko denda onenak erosketak egiteko**



## Jer da Gasteiz ONP

Gasteizko hiriguneko dendek elkarte bat da. Dendetan dandak (eropa, jostailuak...), tabernak, jatobeak, gure hiriaran erdialdean. Elkartasun berruan ze negozio dauden jakiteko, webgunean kontsultatu: [www.gasteizoa.com](http://www.gasteizoa.com).

## Gasteiz ONen erosketak oparia dakur

Gasteiz ONeko dendetan 20 euro baino gehiagoko erosketak eginda, eta Informazio Gumeren baten tiketak aurkeztuta, opari hauetako bat jasoko duzu:

## INFORMAZIO GUNEAK

NON BAIKIDE INFORMAZIO GUNEAK?

Ara plaza - San Francisco plaza - Ricardo Flores plaza

ORDUETAN

12:00 a 14:00 - 18:00 a 21:00 (7. Zuzeneko 27n, 22.00ak arte)

## IZOTZ-PISTANAKO SARBERRAK

SARI UGARIREN ZORRETA, ARABAKO ERRODIAKO ARDAREN IRILBIDEAREN ESKUTIK

## PAKETERIA IRAUNKORRA

## KONTSIGINA ZERBITZUA

## DOANI

3 EUROKO BONUA PARKINGEAN, KUPOI HAU AURKEZTUTA

Kupoi hau eta zure aparkamendu-tiketa Informazio Gumeren baten aurkeztuta, doan lotuko duzu hiru euroko bonu bat Amerikako, Katedralako, Juan Alatako eta Europako parking publikoetan erabiltzeko.